

STEILAS 2021
OPOSIZIO-LEHIAKETA LANBIDE HEZIKETAKO
IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAN

Programazio didaktikoa

AURKIBIDEA

ZER ESKATZEN ZAIGU?

- Deialdia aztertu dezagun

NOLA EGINGO DUGU?

- Programazioaren atalak

ZER ESKATZEN ZAIGU?

Deialdia aztertu dezagun

ZER ESKATZEN ZAIGU?

2. Oposizioaldia.

Oposizioaldiak aurkezpen ekitaldi bat eta bi proba izanen ditu, denak baztergarriak. Bigarren probara pasatzeko, izangaiak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu lehenengo proban.

2.1. Aurkezpen ekitaldia.

Epaimahaiaren edo hautapen batzordeen aurrean eginen den aurkezpen ekitaldi batekin hasiko da oposizioaldia; izangaiak bigarren probako A zatian aipatzen den programazio didaktikoa eraman beharko dute ekitaldi horretara. Aurkezpen ekitaldira joaten ez diren izangaiak edo programazio didaktikoa aurkezten ez duten izangaiak hautapen prozeduratik baztertuko dira. Ez da zilegi izanen izangaien orde bestea pertsona batzuk agertzea.

ZER ESKATZEN ZAIGU?

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez iragarriko da oposizioaldiaren hasiera den aurkezpen ekitaldia. Ez da inola ere egingen 2021eko abenduaren aurretik.

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez, izangaiei dei egingen zaie oposizioaren aurkezpen ekitaldira ager daitezen. Ebazpen hori www.nafarroa.eus helbidean argitaratuko da, aurkezpen ekitaldia baino zazpi egun natural lehenago, gutxienez. Ebazpen horretan epaimahaien aurreko jarduketa noiz, zein ordutan eta non hasiko den adieraziko da.

ZER ESKATZEN ZAIGU?

Era berean, ebazpen bidez dei eginen zaie oposizioaldiko lehen proba egiteko, betiere proba baino zazpi egun natural lehenago. Epaimahai bat baino gehiago baldin badago espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, izangaiak alfabetikoki esleituko zaizkio epaimahai bakoitzari, lehendabizikotik hasita, honela: Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak bi letra aterako ditu zozketaz, eta lehen deituraren hasieran bi letra horiek dituen izangaia izanen da lehena.

Izangaiei egin beharreko hurrengo deiak epaimahaien egoitzetan argitaratuko dituzte epaimahaiak, bai eta www.nafarroa.eus helbidean ere, deialdiaren fitxan, hurrengo ariketak hasi baino berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez.

Izangaiei dei bakarra eginen zaie epaimahaien aurreko jarduketak egiteko, eta agertzen ez direnak hautapen prozesutik kanpo geldituko dira. Horren ondorioetarako, taldekako ariketa baterako deiaren xede diren izangaiek deialdietan zehazten diren egun-orduetan agertu beharko dute. Bakarkako ariketetan, egun bakoitzerako deitutako izangaiek bertan egon beharko dute epaimahaiak jarduketak hasteko ezarritako orduan. “Ez aurkeztutzat” joko dira hasierako deia egiten denean agertzen ez diren oposiziogileak.

Izangaiek oposizioaldiko proben ariketa guztietara agertu beharko dute. Horietakoren batera agertzen ez badira, baztertu eginen dira hautapen prozeduratik.

ZER ESKATZEN ZAIGU?

Oposizioaldiko probak honako hauek izanen dira:

2.1. Lehenbiziko proba:

Lortu nahi den espezialitatearen gaineko berariazko ezaupideak erakustea du helburu, eta bi zati izanen ditu, batera baloratuko direnak. Proba honen bi zatiak egun berean egiten ahalko dira.

Lehenengo proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta bi zatietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izanen da emaitza, baldin eta izangaiek gutxienez 2,5 puntu lortu badituzte zati bakoitzean. Hautapen prozeduratik bazterturik geldituko dira lehen proba honetan gutxienez ere 5 puntu lortzen ez dituztenak.

ZER ESKATZEN ZAIGU?

–A zatia.

Zati honetan ariketa praktiko bat egingen da, frogatzeko ea izangaiak lortu nahi duen espezialitateari dagozkion trebetasun teknikoak menperatzen dituen eta behar den prestakuntza zientifikoa baduen.

V. eranskinean zehazten dira proba honen zehaztapenak espezialitate bakoitzerako.

Epaimahaiek zehaztuko dute A zatia egiteko gehieneko denbora. Ezin izanen da 5 ordutik gorakoa izan.

A zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, betiere izangaiak 2,5 puntu gutxienez lortzen badituzte.

ZER ESKATZEN ZAIGU?

–B zatia.

Zati honetan, epaimahaiak espezialitateko gai-zerrendatik zozketaz ateratako bost gaietako bat idatziz garatu beharko du izangaia, deialdiko espezialitate guztiek 50 gai baino gehiago baitituzte.

Espezialitate bakoitzean aplikatuko diren gai zerrendak indarrean daudenak dira, eta deialdi honen III. eranskinean aipatzen dira.

Izangaiek bi ordu izanen dituzte, gehienez, B zatia egiteko.

B zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, betiere izangaiek 2,5 puntu gutxienez lortzen badituzte.

ZER ESKATZEN ZAIGU? BIGARREN PROBA

Izangaiak bigarren proban parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak zozketaz bi letra aterako ditu eta lehenengo abizenaren hasieran bi letra horiek dituen izangaia hasiko da.

Izangaiak duen gaitasun pedagogikoa eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen baloratuko da. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.

Proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da (%30 A zatiari dagokio, eta %70 B zatiari), eta gainditu ahal izateko, izangaiak gutxienez ere bost puntu lortu beharko ditu, betiere 2,5 puntu lortu baditu gutxienez zati bakoitzean.

ZER ESKATZEN ZAIGU? BIGARREN PROBA

Izangaiak ordubete izanen dute gehienez unitate didaktikoa prestatzeko. Prestaketarako denbora bukatuta, programazio didaktikoaren defentsa hasiko da (hogeita hamar minutuz gehienez) eta unitate didaktikoaren azalpena (hogeita hamar minutuz gehienez).

Izangaiaren parte-hartzea bukatu, epaimahaiak programazio didaktikoaren edo unitate didaktikoaren gainean behar beste galdera egiten ahalko dizkio izangaiari; eztabaida horrek hamabost minutu iraunen du gehienez. Izangai bakoitzak, guztira, ordu bat eta hamabost minutu izanen ditu gehienez programazioa eta unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko.

BIGARREN PROBAKO A ZATIA. PROGRAMAZIO DIDAKTIKO BAT AURKEZTEA ETA DEFENDATZEA.

Izangaiak prestatzen duen programazio didaktikoa epaimahaiari edo hautapen batzordeari eman beharko zaio haren aurrean aurkezteko ekitaldian, deialdi honen I. tituluko zazpigarren oinarriaren 1.2 apartatuan aurreikusitako tokian, egunean eta orduan. Epaimahaiari programazio didaktikoaren kopia bakarra emanen zaio. Izangaiak berak aurkezten ez badu programazioa oposizioaren aurkezpen ekitaldian, hautapen prozeduratik kanpo geratuko da.

Programazio didaktiko hori prestatzean, deialdiaren VI. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean defendatuko da. Izangaiak gehienez ere hogeita hamar minutu izanen ditu azalpen hori egiteko.

Azalpena egiteko, izangaiak programazio didaktikoaren kopia bat eramaten ahalko du, aurkeztu zuenaren berdin-berdina, bai eta egoki iruditzen zaion material osagarria ere, berak eramanda.

Programazio didaktikoaren aurkezpena eta defentsa zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko bigarren probaren kalifikazioaren %30 egingen du. Izangaiak 2,5 puntu lortu beharko dute gutxienez probaren zati honetan haztatu ahal izateko.

BIGARREN PROBAKO B ZATIA.—UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATZEA ETA AZALTZEA.

Izangaiak prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu beharreko unitate didaktikoa bakoitzak aurkeztutako programazioarekin zerikusia izan dezake, edo, bestela, norberaren espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik abiatuta presta daiteke, izangai bakoitzak aukeratzen duena. Lehenengo kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak bere programaziotik hiru unitate aterako ditu zozketaz, eta horietako bat aukeratuko du. Bigarren kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak hiru gai aterako ditu zozketaz bere espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik, eta horietako bat aukeratuko du.

Unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izan daiteke, eta lotura izan behar du kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko gaitasun unitateei dagozkien amaierako gaitasunekin.

Unitate didaktiko hori prestatzean, deialdiaren VI. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, orri batekoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Unitate didaktikoaren prestaketa eta azalpena zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko **bigarren probaren kalifikazioaren %70 egingen du. Izangaiak 2,5 puntu lortu beharko dute gutxienez probaren zati honetan haztatu ahal izateko.**

OPOSIZIOALDIKO PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1.-Idatzizko proba guztietarako ohar orokorrak (programazio didaktikoak joko dira idatzizko probatzat).

Hizkuntza gaitasuna funtsezko gaitasuna da irakaslanean. Horregatik, berariaz baloratuko da. Hizkuntzaren (euskara, gaztelania, ingelesa edo frantsesa, dagokiona) erabilera ortografiko eta diskurtsiboa egiaztatuko da, irizpide hauetan oinarrituz:

–Ortografia akatsak: akats bakoitzagatik 0'25 puntu kenduko dira (hitz berean egindako akatsak behin baino ez dira zigortuko). Adibidez, gaztelaniaz: `alumn@s`, `pq`.

–Probak zer hizkuntzatan egiten diren, hizkuntza horretako hiztegietan ageri diren hitzak hartuko dira erreferentzia gisa.

http://www.rae.es/sites/default/files/Principales_novedades_de_la_Ortografia_de_la_lengua_espanola.pdf

<http://www.rae.es/rae.html>

<https://www.euskaltzaindia.eus/es/>

–Azentuak gaizki jarzea: 0,25 puntu kenduko dira gaizki jarritako azentu bakoitzeko (hitz berean egindako akatsak behin baino ez dira zigortuko). Kontuan hartuko dira RAEk egin dituen azken eguneraketak.

–Gramatika akatsak: 0,25 puntu kenduko dira inkoherentzia gramatikal bakoitzeko.

Ortografia- eta gramatika-akatsak gehienez ere proben zati bakoitzari dagokion guztizko puntuazioaren %20 zigortuko dira.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Hautapen batzordeek edo, kasua bada, epaimahai bakarrek zehaztuko dituzte balorazio irizpide hauek, espezialitate bakoitzaren berezitasunen arabera.

Lehen proba

Lehen proba.—A zatia.

Prestakuntza zientifikoa (zorrotasun teknikoa eta espezialitatearen gaineko ezagutza zientifikoa):

Planteamenduaren justifikazioa edo funts teorikoa.

Hizkera tekniko zehatza eta zuzena.

Espezialitatearen gaineko ezagutza zientifiko eta tekniko eguneratua eta zorrotza aplikatzea.

Proiektu didaktiko bati lotutako kasu praktikoetan: ezagutza zientifiko, kurrikular eta pedagogikoetan oinarritutako planteamendu didaktikoak eta antolakuntzazkoak egitea.

Espezialitateko berezko trebetasunak (espezialitateko trebetasun teknikoak menderatzea, bai eta estrategia eta teknika didaktiko-pedagogikoak ere):

Kasu praktikoak eta haien apartatuak modu zuzen, ordenatu eta eraginkorrean ebaztea.

Proposatutako egoeretarako egokiak diren estrategia tekniko eta/edo metodologikoak aplikatzea.

Behar izanez gero, trebetasun teknikoak erakustea espezialitateko berezko lanabes, tresna, protokolo eta prozeduren erabileran.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Lehen proba.–B zatia.

Gaiaren antolaketa:

Gaia modu egokian justifikatzea.

Sekuentzia logiko eta koherente bati jarraitzea zati guztiak garatzerakoan.

Gaia modu orekatuan garatzea.

Berariazko edukia.

Gaiaren edukien eguneratze eta sakontasun maila.

Gaiaren berezko hizkera teknikoa erabiltzeko zorroztasuna eta zehaztasuna.

Erreferentzia bibliografiko egokiak eta eguneratuak.

Aipamen didaktikoak.

Edukiak duen harremana Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemarekin eta berezko curriculumarekin eta irakaslanarekin.

Gaiari lotutako proposamen didaktiko originalak edo berritzaileak egitea.

Proposamen didaktikoak formulatzea, zeinek harremanean jartzen baitute gaia irakasgaiko edo lanbide-moduluko beste esparru batzuekin edo beste ikasgai edo lanbide-modulu batzuekin.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK: BIGARREN PROBA

Bigarren proba. A zatia.–Programazio didaktikoa aurkeztea eta defendatzea.

Programazio didaktikoak ez baditu betetzen VII. eranskinean adierazitako formazko betebeharrak, probaren zati horri dagokion puntuazioaren %50 kenduko zaio izangaiari. Hauek dira formazko betebeharrak:

“Programazio didaktikoak gehienez ere 50 folio izanen ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 folio horien barruan”.

PROGRAMAZIOKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

–Antolaketa.

Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabera testuingurua ematea.

Ongi planteatuta egotea programazioa osatzen duten elementuak, apartatuen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika.

Espezialitatearekin lotutako ikasgai edo lanbide-modulu bat aipatzea, edo, hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiliz gero, hainbat ikasgai edo lanbide-modulu aipatzea, eta horien artean barnean dagoela helburu duen espezialitatearekin lotutakoa.

PROGRAMAZIOKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

–Eduki teknikoa.

Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.

Honako hauek zehaztea: ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, ebaluazioarekin duten lotura, zer neurritan laguntzen dion hezkuntza-mailari dagozkion gaitasunak eta zikloko gaitasun orokorra eskuratzen eta, orobat, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta gaitasun-unitateen gaitasunak eta kompetentziak, eta, hala badagokio, lanbide-kualifikazioak.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK: BIGARREN PROBA

–Eduki didaktikoa.

Ikasturterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.

Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.

Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriei.

–Programazioa modu argian azaltzea.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK: BIGARREN PROBA

B zatia.–Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea.

Alderdi orokorrak.

–Unitate didaktikoa justifikatzea eta hari testuingurua ematea programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.

–Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.

–Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.

Helburuak, edukiak eta metodologia.

–Helburuak, edukiak eta ikaskuntzaren emaitzak ongi planteaturik daude eta koherenteak dira beren artean. Horiek guztiak gaitasun orokorrekarekin eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialekin, bai eta gaitasun unitateekin ere, daukaten harremana zehazten da.

–Proposatutako metodologia berritzailea da.

PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK: BIGARREN PROBA

Jarduerak.

- Jarduerak motibagarriak dira eta hainbat zailtasun maila dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko.
- Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.
- Jarduerak koherenteak dira eta ikaskuntzaren emaitzak / amaierako gaitasunak lortzearekin lotzen dira.

Ebaluazioa.

- Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak ezarri dira, indarrean dagoen araudiari egokituak.
- Unitate didaktikoak programazioaren osotasunean duen pisua ezarri da.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN ETA UNITATE DIDAKTIKOAREN JARRAIBIDEAK

A. Programazio didaktikoa.

Espezialitate guztietarako oharrak:

Programazio didaktikoa izangaiak parte hartzen duen espezialitateari lotutako arlo, irakasgai, modulu, esparru edo proiektu baten curriculumari buruzkoa izanen da. Bertan, helburuak, gaitasunak, edukiak, metodologia didaktikoa, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko arreta neurriak eta ikaskuntzaren emaitza ebaluagarriak azaldu beharko dira, bai eta, hala bada, gaitasunen eskuratze-maila eta helburuen lorpena ebaluatzeko irizpideak ere.

Programazioa kasuan kasuko espezialitateko irakasleek irakasteko eskumena duten hezkuntza maila edo etapa baten ikasturte baterako prestatuko da.

Programazio didaktikoak gehienez ere 50 folio izanen ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 folio horien barruan.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN ETA UNITATE DIDAKTIKOAREN JARRAIBIDEAK

Programazioa egiteko, izangaiak deialdi honen VII. eranskinean aipatzen diren curriculumak erabili beharko ditu.

Programazioa ziklo jakin batzuen curriculumetan oinarrituko da. Izan ere, helburu duen espezialitateak irakaslana izan behar du ziklo horien moduluetan.

Orientazio gisa, VII. eranskinean jasotzen dira Nafarroan eskaintzen diren Lanbide Heziketako zikloen curriculumak, zeinetan irakaslana baitute deialdi honen xedeko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako espezialitateek.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN ETA UNITATE DIDAKTIKOAREN JARRAIBIDEAK

B) Unitate didaktikoa.

Unitate didaktikoa egitean honako hauek zehaztu beharko dira: ikaskuntzaren emaitzak, edukiak, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta errekupeazio jarduerak, alderdi metodologikoak eta antolaketakoak, ebaluaziorako erreferenteak, ebaluaziorako prozedurak, ebaluaziorako tresnak eta kalifikaziorako irizpideak eta etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio tresna eta sistemak.

Unitate didaktikoa, aurreko paragrafoetako alderdiei buruzkoa izateaz gain, lan unitateei buruzkoa ere izan daiteke, eta lotura izan behar du kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko gaitasun unitateei dagozkien ikasketa emaitzekin.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA PRESTATZEKO ARAUDIA

–21/2019 Foru Agindua, martxoaren 5koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztatpena arautzen dituena.

–Foru dekretuak, ezartzen dituztenak Oinarrizko Lanbide, Teknikari eta Goi mailako teknikari tituluei dagozkien oinarrizko, maila ertaineko eta goi mailako Lanbide Heziketako zikloen egitura eta curriculuma Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako Irakaskuntzetan; eta foru dekretuak, ezartzen dituztenak Lanbide Heziketa Bereziko zikloen egitura eta curriculuma.

NOLA EGINGO DUGU?

Programazioaren atalak

PROGRAMAZIOAREN ATALAK

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK HIRU GALDERA NAGUSIRI ERANTZUN BEHAR DIE:

1. ZER
2. NORI
3. NOLA

BAINA, HORIEK ERANTZUN AURRETIK, PROGRAMAZIOA BETE KONTESTUAN KOKATU BEHAR DUGU.

GALDERA HORIEI ERANTZUTEKO AURKIBIDE POSIBLE BAT HAU DA

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA
2. TESTUINGURUA (NORI)
3. CURRICULUM ELEMENTUAK
4. METODOLOGIA
5. EBALUAZIOA
6. ANIZTASUNAREN TRATAERA
7. UNITATE DIDAKTIKOAK
8. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIO TEORIKOA ETA LEGALA

Aurkibideaz gain komeni da sarrera bat egitea. Bertan, programazioan aztertzaileak aurkituko dituen atalen berri emango du.

Hau da, zein hurrenkeratan, zergatik, zer eranstean dion atal bakoitzak gure ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei.....

Zein modulu aukeratu dugun ere aipatuko dugu. Modu horretan aztertzaileak hasieratik kokatuko ditugu.

Programazioan zehar landuko ditugun puntuak sarrerari erreferentzia eginez lotu ditzakegu.

Kontuan hartu sarrera on bat egiteak aukera emango digula gerora gure programazioa antolatzeko.

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIO TEORIKOA ETA LEGALA

Hau da, zertarako programatzen dugu?:

Sarean hainbat artikulua eta material aurkituko duzue honen inguruan. Bilatu eta zuentzat egokiena dena jarri.

Adibide bat:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/comunicaciones_centros/eu_ins pec/adjuntos/Programazio_didaktikoak_orientabideak_LH_eta_DBH.pdf

"Programazio didaktikoa irakasle-lanaren atal bat da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dago. **Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu.**

Aurretiko hausnarketa horiek egokiak eta errealistak izatearen baitan egongo da, neurri batean, programazioaren kalitatea, bai eta egingo den proiektuaren emaitza ere. Programazioa **hezkuntza-jardueratik eta ikasgelako lanetik hurbilen dagoen zehaztapen maila** da, eta haren helburuak lotura zuzena du irakasteko eta ikasteko prozesuaren kudeaketa praktikoarekin eta horren bidez lortzen den emaitzarekin. Hezkuntza-asmoak zehazten dituen dokumentua da."

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIO TEORIKOA ETA LEGALA

Zeintzuk dira gure programazioa osatzeko erabiliko ditugun lege eta arauak?

–21/2019 Foru Agindua, martxoaren 5koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztapena arautzen dituena.

–Foru dekretuak, ezartzen dituztenak Oinarrizko Lanbide, Teknikari eta Goi mailako teknikari tituluei dagozkien oinarrizko, maila ertaineko eta goi mailako Lanbide Heziketako zikloen egitura eta curriculuma Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako Irakaskuntzetan; eta foru dekretuak, ezartzen dituztenak Lanbide Heziketa Bereziko zikloen egitura eta curriculuma.

LEHEN ATALA LABURBILDUZ

Sarrera + programazioaren zentzua (oinarri teorikoa) + justifikazioa lege ikuspegitik.

2. TESTUINGURUA ETA IKASTALDEA (NORI)

2.1. HERRIA eta IKASTETXEA

Ikastetxeak ez dira ezerezetik sortutako erakundeak. Errealitate jakin bati erantzuten dioten erakundeak dira. Bere ingurunearen beharrei erantzun eta errealitatea eraldatzeko asmo dutenak.

-Zer idatzi puntu honetan?

Ikuspuntu sistemikotik gure ikasleen errealitatea ulertzeko testuingurua aztertu behar dugu. Galdera hauei erantzun beharko lioke:

Zein herritan kokatzen da? Biztanle kopurua? Errealitate sozioekonomikoa? Zein auzotan dago kokatua? Zer nolako auzoa da? Euskararen egoera? Auzoaren parte hartzea eskolan?

Gure ikastetxea nolakoa da? Zer ikasketa eskaintzen ditu? Zer nabarmentzen da IHPan? UPOan zerbait berezia? Plan bereziren batean dago murgilduta?

Zenbat irakaslek osatzen du klaustroa?

2. TESTUINGURUA ETA IKASTALDEA

Oposaketako ebaluazio irizpideetan ez du ikastaldearen definizioari buruzko aipamenik egiten, baina eduki didaktikoari buruzkoan honakoa dio:

“Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriak.”

Beraz, programazioak (nola ez) ikastalde bat izango du erreferentzia. Eta, atal honetan ikastalde horren deskribapena egingo dugu (aniztasun neurriak, atal horretarako utziz).

Zenbat ikasle, haien ezaugarriak, berariazko premiak eta premia bereziko ikasleak...

BIGARREN ATALA LABURBILDUZ

Herriaren deskribapena (ezaugarri demografikoak, kokapena, ezaugarri sozio-ekonomikoak, hizkuntza egoera, hezkuntza komunitateko agenteak...) + ikastetxearen ezaugarriak (fisikoak + ikastetxearen proiektuak) + taldearen deskribapena.

3. ATALA: CURRICULUM ELEMENTUAK

https://ivac-eei.eus//upload/cf/documentos/13/adg_t_ges_adm_dcb_e.pdf

Lanbide erreferentea.

Lanbide profila

a) Tituluaren gaitasun orokorra.

b) Kualifikazioak eta gaitasun unitateak

c) Lanbide gaitasunak, pertsonalak eta sozialak eta etengabeko ikaskuntzarako gaitasunak.

- A) Heziketa zikloaren helburu orokorrak

- B) Lanbide moduluak. Haien izena, iraupena eta sekuentziazioa

Ondoren, lanbide moduluen garapena dator eta, bertan ezartzen dira zeintzuk diren:

- Ikaskuntzaren emaitzak

- Ebaluazio irizpideak


- Edukiak

- Orientabide didaktikoak

CURRICULUM ELEMENTUAK



CURRICUCULUM ELEMENTUAK



4. METODOLOGIA

Zer da metodologia? Galdera horri erantzunez hasi dezakegu puntu hau.

Ikastetxeek metodologiak erabakiko dituzte eta horietan kontuan hartuko dira ikasleen ikasteko erritmo desberdinak eta norberaren ezaugarriak eta/edo ikasteko estiloak, ikasle guztiek beren gaitasunen garapen-maila gorena lor dezaten. Era berean, metodologia horiek nork bere kasa ikasteko gaitasuna eta taldean lan egitea bultzatu beharko dituzte.

Metodologia didaktikoa, irakaslanaren deskribapena zein irakaslanaren antolaketa barne hartzen dituena. Ikasleek ikasi eta gaitasunak eta helburuak lortu ahal ditzaten irakasleek, kontzienteki eta hausnarturik, antolatzen eta planifikatzen dituzten estrategien, prozeduren eta ekintzen multzoa da.

Irakasle taldeei dagokie metodologia didaktikoaren gaineko erabakiak hartzea, ikasle guztien arrakasta erdiesteko ikuspegi egokienak bilatuz.

METODOLOGIA

Metodologia didaktikoa, irakaslanaren deskribapena zein irakaslanaren antolaketa barne hartzen dituena. **Ikasleek ikasi eta gaitasunak eta helburuak lortu ahal ditzaten irakasleek, kontzienteki eta hausnarturik, antolatzen eta planifikatzen dituzten estrategien, prozeduren eta ekintzen multzoa da.**

Irakasle taldeei dagokie metodologia didaktikoaren gaineko erabakiak hartzea, ikasle guztien arrakasta erdiesteko ikuspegi egokienak bilatuz.

Beraz:

- Kontzienteki bada, atzetik planteamendu pedagogiko bat dago. Zein? azal dezagun. Ikuspegi sozio-eraikitzailea izango da oinarria, ikuspegi inklusiboarekin bat.
- Antolaketa eta planifikazio aldetik, gure sekuntzia edo unitateetan hurrenkera bat ikusi behar da. Irizpide psikopedagogiko, epistemologikoak eta praktikoak azaldu behar dira.
- Saioen beraren antolaketa azaldu behar da. Baliabideak adierazi behar ditugu: bai materialak zein didaktikoak.
- Gainera, kontuan hartu behar dugu irakasgai guztien didaktika ez dela bera. Zer dio Curriculumak modulu bakoitzari buruz?

METODOLOGIA

Metodologiaren atal honetan **IKT**-ak ere aipatu beharko genituzke (unitateetan jasoko baditugu ere).

IKTek hezkuntzan bete behar duten paperaren inguruan hausnartzea ez dago gaizki.

Izan ere, helburu edo bitarteko (lanabes) behar dute izan?

Gure planteamenduetan zer jaso behar dugu? Moodle, Koaderno digitalak, Google Classroom, horiek baldin badira gure tresnak horiek aipatuko ditugu.

Zer eta zertarako erabiliko ditugun zehaztuz.

Horietaz gain, infografiak, denbora lerroak, simulazioak, aurkezpenak, komunikaziorako edo zernahi funtzioetarako erabiltzen ditugun tresnak ere aipatuko ditugu.

Laburbilduz: Marko Teorikoa + Foru dekretuak diona + gure planteamendua (IKTak barne)

5. EBALUAZIOA

21/2019 Foru aginduak honakoa dio ebaluazioari buruz:

3. artikulua Ebaluazioaren xedea.

1. Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ebaluazioaren helburua da ikasleen ikaskuntza baloratzea, ikaskuntza hori honako hauek eskuratzera zuzenduta dagoela: heziketa zikloko gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren barnean programa horri dagozkion lanbide kualifikazioak eta, hala denean, gaitasun unitateak.

EBALUAZIOA

Lanbide Heziketan ikasteko metodologia berriak aplikatzen dituzten ziklo eta moduluetan, ebolutiboa eta partekatua da, eta ikaskuntza ingurune berriarekiko koherentea, aurreko paragrafoan aipatutako ikaskuntzaren balorazioa, eta proiektu metodologikoan jasotako gaitasun esanguratsuenen eskuratze maila du ardatz.

2. Ikaskuntza prozesuaren funtsezko elementuetako bat da ebaluazioa, bai irakasle eta ikasleentzat bai hezkuntza sistemako Lanbide Heziketarako, ikaskuntzen kalitatearen erreferentzia baita eta horiek errazten baititu.

EBALUAZIOA

4. artikulua Ebaluazioaren alderdi orokorrak.

1. Ebaluazioa lanbide moduluen bidez egiten da, erreferentzia gisa ikaskuntza emaitzak eta horietako bakoitzaren ebaluazio irizpideak hartuta, baita heziketa zikloko helburu orokorrak ere. Azken horietan, ziklo bakoitzerako zeharkako zenbait gaitasun zehazten dira, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak eskuratu diren kontuan hartuta.

Ikaskuntza metodologia berriak aplikatzen diren Lanbide Heziketako ziklo eta moduluetan, ebaluazioak ikuspegi ebolutibo eta partekatu berria dauka, ikaskuntza ingurune berriarekiko koherentea, eta proiektu metodologikoan jasotako gaitasun esanguratsuenen eskuratze maila du ardatz. Ebaluazioa modulu artekoa izaten ahal da. Kasu horretan, proiektua eta horren ebaluazioa tartean diren modulu guztietako irakasle arduradunen artean adostu beharko dira, eta gaitasun desberdinak ebaluatzen ahalko dituzte, modulu bakoitzaren arabera.

EBALUAZIOA

2. Lanbide moduluen ebaluazio irizpideak eta heziketa zikloko helburu orokorrak dira ikaskuntza emaitzen betetze maila baloratzeko erreferentzia nagusiak. Ebaluazio irizpideak programazio didaktikoetan zehaztu beharko dira, berariaz eta zehatz azalduz dagokion modulu profesionala gainditzeko eskatuko diren ikaskuntza emaitzen betetze maila. JC1
3. Ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa etengabea eta integratzailea izanen da; funtsean prestakuntza izaera izanen du eta ikasleen prestakuntza prozesu osoan egingen da.
4. Ebaluazioa integratzailea izanen da, izan ere, heziketa zikloaren helburu orokorrak hartu behar ditu kontuan, moduluen **ikaskuntza emaitzetan** adierazitakoaren bidez. Era berean, **ebaluazioa hezitzailea** izanen da; hortaz, ikasleei eman beharko zaizkie eskuratu beharreko gaitasunen mailari buruzko informazio eta orientazio egokia, baita beren ikaskuntza prozesua hobetzeko proposamenak ere.

Diapositiva 46

JC1

Errubrika

Jon Caballero; 2021/11/28

GURE EBALUAZIO PLANTEAMENDUA

21/2019 Foru aginduak dioena kontuan hartuz gure ebaluazio planteamendua osatuko dugu.

Atal honetan gure ebaluazio planteamendua jaso behar dugu. Planteamendu horrek oinarrizko bost galderari erantzun beharko lioke:

Zertarako ebaluatu?

Noiz ebaluatu?

Nork ebaluatu?

Zer ebaluatu?

Nola ebaluatu?

Galdera horien erantzuna bat etorri behar da curriculumek ebaluazioari buruz diotenarekin. Beraz, komeni da atalaren hasieran dekretuek ebaluazioari buruz diotena labur jasotzea. Eta, ondoren ebaluazio planteamendu bat jaso.

GURE EBALUAZIO PLANTEAMENDUA: ZERTARAKO? NOIZ?

ZERTARAKO EBALUATU?

Bi erantzun daude:

Ebaluazio sumatiboa: Ezagutza jakin batzuk eskuratu direla egiaztatzeko.

Ebaluazio hezitzailea: Ikasleek ikaste prozesuan izan dituzten zailtasunak eta egin dituzten aurrerapenak identifikatzeko eta prozesua ikasleen beharrian errealetara egokitu ahal izateko.

NOIZ EBALUATU?

Hasierako ebaluazioa: Prozesuaren hasieran egiten da. Ikasleen hasierako egoera zehazten du, aurreikusitako planifikazioa egokitzeko. Hezitzailea da.

Prozesuaren ebaluazioa: Prozesuan zehar egiten da. Ikasleek prozesua egokitzeko izan dituzten zailtasunak eta egin duten aurrerapena identifikatzen ditu. Hezitzailea eta erregulatzailea da. Hauxe da ebaluazio inportanteena ikaskuntzaren emaitzetan duen eraginagatik.

GURE EBALUAZIO PLANTEAMENDUA: NOIZ? NOLA?

NOIZ EBALUATU?

Amaierako ebaluazioa: Prozesuaren amaieran egiten da. Ikasleak ikasitakoa egiaztatzen du. Kalifikazioa jartzeko eta sailkatzeko erabiltzen da. Baina, ikuspegi hezitzailea ere badu, berreraikuntza gisa ulertzen badugu.

NORK EBALUATU?

Irakasleak: Hasierako ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa eta azken ebaluazioa egiten ditu. Ebaluazio sumatiboa eta hezitzailea egiten ditu.

Ikasleak: Ebaluatu (ERREGULATU) egiten du bere ikaskuntza. Ikas-prozesua ebaluatzen du.

Ikaskideek: Kideen ikaskuntza ebaluatzen dute. Ikas-prozesua ebaluatzen dute.

GURE EBALUAZIO PLANTEAMENDUA: NOIZ? NOLA?

ZER EBALUATU?

Ikaskuntzaren emaitzak ebaluazio adierazleen bidez ebaluatzen dira.

Edukien bidez lantzen dira horiek.

Moduluetako ikaskuntza emaitzen bidez gaitasunak eskuratzen goaz.

NOLA EBALUATU?

Modu esanguratsuan ikasi den ala ez egiaztatzen bideratutako edozein ebaluazio mota gaitasunen garapena ebaluatzen bideratu behar da.

Ebaluazio jarduerak jakite mota ezberdinak batera eta koherentziaz abiarazteko gaitasuna erakusteko aukera eman behar dute.

Askotariko tresnak erabiliko ditugu.

ANIZTASUNA

21/2019 Foru aginduak dio:

7. artikulua Aniztasunari erantzutea. Hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleak.

1. Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek lortu ahal izan ditzaten prestakuntza zikloko gaitasun orokorra, eta orobat lortu gaitasun profesional, pertsonal eta sozialak, eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren kualifikazio profesionalak baita, hala badagokio, gaitasun unitateak, titulu bakoitzari dagozkionak, ere, ikastetxeek honako neurri hauek aplikatzen ahalko dituzte, besteak beste:

a) Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzat:

–Sartzeko curriculum egokitzapenak (SCE). Egokitzapen hauek ez dira inola ere kontuan hartuko lortutako kalifikazioak jaisteko.

–Ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako prestakuntza ibilbide bat sortzea. Behar bezala frogatutako osasun problema larriak dituzten ikasleei ere aplikatzen ahal zaie neurri hau.

ANIZTASUNA

b) Adimen gaitasun handiak dituztenentzat:

–Curriculuma aberasteko programak, gaitasun horiek ahalik eta gehien garatzeko.

Gainera, neurri horiek ikaskuntza metodologia berriak aplikatzen diren Lanbide Heziketako ziklo eta moduluetan hartzen ahalko dira, ikasleek proiektu metodologikoan definitutako gaitasun esanguratsuenak eskura ditzaten.

2. Deitzen diren proba berariazkoak egitean, tresnak egokituko dira, baita, behar denean, denborak eta laguntzak ere, hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen ebaluazioa ongi eginen dela bermatzeko.

GURE GELAKO ANIZTASUNA

Zein esku hartze proposatzen ditugu gure talderako? Dagoeneko gure taldea deskribatu dugu. Orain, deskribapen hori aintzat hartuta, gure taldearen aniztasunari nola erantzungo diogun azaldu behar dugu.

Kontuan hartu ikastetxeek aniztasun plan izaten dutela. Eta hori izango da gure oinarria.

Ondoren, foru aginduak eta ikastetxeko aniztasun planarekin bat datorren planteamendua egin. Bertan, egingo ditugun jarduera eta egokitzapen tipoak azaldu.

ANIMO ETA EKIN LANARI!!